



ARAU SUBSIDIARIOAK ALDATZEA KOMENI DA?

Barrundiako udalerriko planeamendurako arau subsidiarioak udalerriko lurraldearen antolamendu integrala egiteko tresna dira. Horien bitartez, lurra sailkatzen da (hiri-lurra, urbanizagarria, ez-hiritarra...), hirigintza-ahalmenak mugatzen dira eta ahalmen horien eraginkortasuna eta erabilera baldintzatzen da. Laburbilduz, eta hizkera arruntan, arau subsidiarioen bitartez, Barrundian egin nahi diren edozein eratako eraikinak edo erabilerak erregulatzen dira, bertan arautzen baita nola egin behar diren eta non egin daitezkeen.

Arauen indarraldia, berez, mugagabea da, baina, normalean, 8 bat urte egoten dira indarrean, eta aldaketa partzialak ere egin daitezke.

Indarrean dauden arau subsidiarioek akats asko dute, baina ez bakarrik ezker abertzalearen ikuspuntutik, baita ikuspuntu objektibo huts batetik ere. Hemen hainbat gogoeta egiten ditugu horien inguruko eztabaida pizteko:

•Barrundiako arau subsidiarioak egokitu egin behar dira onartu zirenetik aurrera sortutako legeriara, hau da, 2003ko uztailetik aurrera sortutakora, data horretan sartu baitziren indarrean. Hona hemen legeria horretako xedapen nagusiak:



Buletin honen edukiak:

ARAU SUBSIDIARIOAK ALDATZEA KOMENI DA?	Orr. 1,2,3
BARRUNDIAKO UDALEKO ALKATEARI	Orr. 4,5
UDALEKO BERRIAK	Orr. 5,6
ABIADURA HANDIKO TRENA ERE BARRUNDIATIK PASATUKO DA	Orr. 7,8
NOLA ULERTU EGOERA POLITIKOA?	Orr, 8,9
MEDIKU-KONTSULTA ORDUEN MURRIZTAPENA	Orr, 10
DEIALDIA. BILERA IREKIA BARRUNDIAN	Orr, 10

aumategi@yahoo.es

-Lurzoruaren Legea; izan ere, besteak beste, etxebizitza-dentsitate handiagoa sustatzen du, lurzoruaren okupazioa txikiagoa izan dadin. Horrek ez du ekarri behar ingurua kontuan hartu gabe eraikitzea edo lehendik dagoenarekiko harmonia apurtea.

-Ibai eta Erreken Arlokako Lurralde Plana, urak har ditzakeen ingurunetan etxebizitzak edo bestelako eraikinak egitearen aurka agertzen dena.

•Tokiko Agenda 21 ospetsuak ere izan behar luke bere aplikazioa arau subsidiarioetan, Barrundian egiten diren eraikuntza eta hirigintza-jarduketara guztietan, jasangarritasuna kontuan har dadin.

•Oraingo arau subsidiarioak onartzeko unean, ez zen kontuan hartu gure herrien ur-horniketarako ahalmena. Hori zuzitzeko, zera esaten da, “*udalerriko herri guztietan, ur-emia nahikoa da kasu bakoitzean aurreikusitako hazkundeei dagozkien oraingo eta etorkizuneko kontsumoak asetzeko*”. Denok dakigu, ordea, hori ez dela horrela. Hori justifikatzeko orduan, ez ziren kontuan hartu herriak edo Partzuergoa hornitzeko ur-emakidak, ezta lehendik zeuden arazoak ere. Gainera, ez ziren kontuan hartu Barrundian dauden abeltzaintzako ustiategietako kontsumoak, eta esangaratsuak dira.

•Barrundiako herrietan dagoen saneamendu-ahalmena ere ez zen kontuan hartu. Egungo arau subsidiarioetan onartu egiten da ez daudela, oro har, sistema bereziak ur beltzetarako eta euri-uretarako eta, hala ere, hauxe esaten da: “*ahalmena nahikoa da mugarik gabeko hazkunde potentzial baterako*”. Hori, teknikari batek sinatutako txosten batean agertzen bada ere, ez da horrela. Begien bistakoa da zenbait herri-tako isurketak “legeztatu ezinezkoak” liratekeela gaur egun, Barrundiako ibaietara



ARGOMAIZ

egiten diren isurketek argi erakusten dute-nez.

•Oraingo arau subsidiarioetan, ontzat eman zen zenbait herri orain direnaren bikoitza baino gehiago izateraino haztea. EAeko Lurraren Antolamenduko Artezbitetako 12. artikuluko 4.11 puntuan, ordea, mugatu egiten da udalerrietako gune txiki-tako bizitegi-garapenerako gehieneko ahalmena, eta dauden etxebizitzaren % 100ean finkatzen da. Irizpide hori ez da betetzen Audikanan, Dallon, Etxabarrin eta Hermuan, izan ere, herri horietan, ahalbidetzen den hazkunde guztia gauzatuko balitz, etxebizitzaren kopurua bikoitza eta

gehiago egingo litzateke denbora gutxian, lehen salatu genuen bezala. Beste herrietarako planifikatutako hazkunde ere gehiegizkoa da.

- Goi-tentsioko sareetarako tartea ere zaindu beharko litzateke. Eredu elektromagnetikoek pertsonen osasunean izan dezaketen eragin kaltegarria saihesteko, etxebizitzaren eta goi-tentsioko sarearen arteko distantzia metro batekoa izatea gomendatzen da tentsioko kilovolt bakoitzeko. Barrundiako iparraldetik doan linea, Elgea ondotik igarotzen dena, 400 kv-koa da, eta horrek ez du erremediorik dagoeneko. Barrundia erditik doana 220 kv-koa da.

- Egungo arau subsidiarioekin, ez dago aukerarik Barrundian inolako industria-rik jartzeko, ez handirik, ez txikirik.

- Berriz aztertu beharko litzatekeen kontu bat estetikarena da. Arau subsidiarioetan argi azaltzen da eraikin berriek arkitektura-ingurunea errespetatu behar dutela eta debekatuta daudela *“eskualdetik kanpoko herri-arkitekturako estiloak”*. Baina hori ez da betetzen edo hobeto arautu beharko litzateke, izan ere, teilatu-hegalik gabeko etxeak, izugarritzko beirateak, diseinu abangoardistako etxeak eta abar egiten direnean, ez da arkitektura-ingurunea errespetatzen.

- Sustatzen den espaloi-mota ere — zintarri altuekin— ez dirudi oso egokia gureen moduko herrietarako. Urbanizazio berrietan ere, ez da beharrezkoa hainbeste argi jartzea, are gutxiago energia-kontsumoan aurrezteko planteatzen dugunean.

- Oraingo arau subsidiarioen akatsik handienetakoa bat da egin zirenean herri-tarrek ez zutela aukerarik izan parte hartzeko eta ez zela eztabaidaririk egon. Kontzejuen parte hartzea ere ez zen inola



bideratu.

Hau guztia ikusita, ondorioa argi dago. Hasieratik eduki beharko litzateke kontuan zertarako aldatu nahi diren arau subsidiarioak. Ez litzateke egokia izango aldatu eta, hala ere, orain arteko arazoe-kin jarraitzea. Aldatzen direnean, helburuetako bat gure herrietako neurritz kanpoko hazkuntza geldiaraztea izan behar da. Kontuan hartu behar da, baita ere, lurraren okupazioa, herrien hornidura eta saneamendu ahalmena eta, garrantzitsua goa dena, egiten den planeamenduak aukera eman behar die Barrundiako seme-alabei, behingoz, bertan bizitzeko.

BARRUNDIAKO UDALEKO ALKATEARI

Urtebete igaro ondoren, legealdiak azken hamabi hilabete hauetan izan dituen joan-etorriak laburbilduko dituen balantzea egin nahiko genuke.

Hasteko, gure udal taldea ez dator bat, azken aldian egiten ditugun udalbatzen maiztasunarekin. Zinegotzi lanetan hasi aurretik, udalbatzak hilabetero egiten zentuzten eta udal hauteskundeak amaitu orduko, bi hilabetero egitea proposatu zeniguten; hala ere, zuen gehiengo absolutuari esker, hilabete eta erdiro egitea onartu zenuten (zuek bai eskuzabalak!). Udalbatzen batezbesteko iraupena 4 ordukoa izan ohi da eta denbora tarte honetan, hainbeste gai eta eztabaidaren ondoren, erabaki egokiak hartzeko eta argumentatzeko gaitasuna gutxitzen da.

Komisioak. Barrundiako Udalean egiten diren komisioren izaera erabat itxia da eta betetzen duten funtzio bakarra, udalbatzan eztabaidatuko diren gaiez informatzea da; eztabaidarako gaiak herritarren parte-hartzerik gabe erabakitzen dira. “Popurri” izenaz ere ezagutzen diren komisioko hauek, beraz, ez dute inolako parte-hartzerik sustatzen gure herrietan. Honen arian, harrigarria da Udal honek 6000€ko mailegua sortzea “parte-hartzea planifikatu eta indartzeko” proiektu bat egiteko. Gauzak etxean egiten hasi behar dira Alkate Jauna.

Guk osatzen dugun Udal Taldeak, aspalditik eta gaur egun ere, komisioko zein udalbatzak grabatzea proposatzen du. Gure ezadostasuna zuen gehiengo absolutupean geratzen da beti, eta jarrera hori oso “kiroltasun” gutxikoa dela pentsatzen dugu. Hala ere, aitortu behar dugu, aurkeztutako azken aktetan bilakaera positibo bat



sumatu dugula, izan ere, erredakzioak geroz eta objektiboagoak direla konturatu gara. Gauzak ondo egiten hasten zarenean guk ere badakigu aitortzen.

Zinegotzien kapituluaren sartzeraz goaz. Zuek, PNV Udal Taldeak, Hirigintza eta Gizarte Ongizatearen zinegotzigoak eskaini zenizkiguten, betiere lote negoziatzina eta zatietan zela argi eta garbi utziz. Dena edo ezer ere ez. Etxebizitza politikan ditugun desadostasun nabariak eta zuen gehiengo absolutua kontuan hartuta, benetan onartuko genuela uste al zenuten? Herriaren alde lan egin bai; baina ezin ditugu konpetentzia eta ardura jakin batzuk hartu, gehiengo absolutuaz baliatuta, gogoak ematen dizuena egingo duzuela badakigunean.

Burura datorkigu ere Parke Eolikoak duen eraginagatik dagoen kanon-a. 2007ko abuztuan eta behin eta berriz esan ondoren, Eolicas de Euskadiri azalpen bat eskatu zitzaion honen inguruan. Gaur

egun oraindik erantzunaren zain gaude; utzikeria, interes falta edota itxoiten asper-tuko garela uste al duzue? Buruko min asko ekidingo zenituzkete gai hau argi eta garbi azalduko bazenukete; guri ez bai-tzaigu ahaztuko.

Talde-lan on baten adibide argia izan da Hizkuntzaren Normalizaziorako Tekni-karia berriro kontratatu izana. Honek gure herriarentzako ekarriko lituzkeen onurak bultzatu gintuen elkarlanera. Badaude beste hainbat egitasmo udal taldeak elkar-lanera bultzatu gaitzaketenak: zaborren kudeaketa, konpostia, Gazte Eguna, mu-gikortasun mugatua duten pertsonentzako laguntza teknikorako mailegu zerbitzua, kultura...; gai hauetan eta beste askotan gure proposamenak arazorik gabe onartu ditzakezue elkarrekin landu ahal izateko.

Oposizioa gara eta ez etsaiak. Mahai gai-nean dugu etxebizitzaren gaia. Gure ustez posiblea da elkar-ulertze puntu batera iris-tea, bada, abiatu gaitezen hortik.

Arau subsidiarioei dagokienez, gure herriaren “zapatilak” direla esan gene-zake. Ematen dugun pauso bakoitzean min egiten badigute, ez al genituzke aldatu behar? Edota egokiagoa iruditzen al zai-zue egunero sortzen dizkiguten zauriei eta minari ohitzea?

Datorren urteko legealdiaren balantze positiboago baten alde lan egingo dugu hain beharrezkoa den oposiziotik, eta es-pero dugu zuek ere saiakera berdina egingo duzuela gobernu taldetik.

??? *Udal Taldea*

UDALEKO BERRIAK

Euskara normalkuntzarako teknikaria kontratatzea

Euskara normalkuntzarako teknikaria kontratatu da azkenean, eta astean 4 orduz ari-tuko da gure udaletxean, ostiraletan, 11:00etatik 15:00etara. Bere lehen eginkizuna Eus-kara normalkuntza plana egitea izango da, eta ziur gaude lana soberan izango duela, gure udalerrian hutsetik abiatzen garelako gai horretan. Kontratazio hau aho-batez erabaki zuen udalbatzak.

Iduia Jauregiaren birgaitzearen 2. fasea.

TEUSA eta CLAR enpresek osatutako U.T.E-ari esleitu zaio udaletxe berriak izango duen eraikinaren birgaitzearen 2. fasea. Bigarren fase honetan eraikuntzaren egitura osoa indartu, eta hirugarren solairua edo ganbara konpontzea aurreikusten da. 977.725'12€ izango da esleipenaren zenbatekoa, lehiaketako hasierako prezioetik %6a jaitsi ondoren. Gogoratu behar da eraikuntzaren erosketa eta 1. fasean,. 1.115.276,42€ gastatu zituztela.

Ezker Abertzaleko zinegotzien jarrera abstentzioaren aldekoa izan da gai honetan, ez guk eta ezta gainerako barrundiarrek ere, ez dugulako izan gai honi buruz iritzia emateko eta partehartzeko aukerarik (ez jauregia erosteko arrazoiei buruz, ez birgaitzeko proiektu- en inguruan, ez bertan ezarriko diren zerbitzuei buruz, eta ezta egiteko moduari buruz ere).

Garzonen Autoa

EAJko udalbatzako kideen iritziz, EAE-ANV alderdiaren ekintzak bertan behera uzten dituen Garzonen Autua aplikatuz, eta hitzez hitz esanda “alkatearentzat izan ditzakeen ondorioengatik”, EAE-ANVko udal taldeak ez du aurrekontuetan adostutako 300€ko kontsignazioa jasoko. Era berean ezinezko izango zaio talde bezala akordio proposamenak edo mozioak aurkeztea, zinego-tzien banakako proposamenak bakarrik aurkeztu ahal izango dituelarik.

Erabaki larri honek agerian uzten du EAJko udal taldearen benetako izaera. Horren denbora gutxian tamaina honetako koherentzia eza sinesgaitza zaigu, izan ere alde batetik “ pertsona guz-tiek aukera berdintasunean herri honetako bizitza sozial eta politikokoan partehartzeko duten esku-bidearen alde” daudela esaten dute, eta bestetik, eta osoko bilkura berean gainera, kontrakoa egin eta Garzonen eraso berri honekin bat egin dute.

Haizerroten eraso Barrundian

Etxabarriko herri batzarrak ezetz esan zion bere garaian haize neurgailu bat bere mendietan jartzeari, tamaina txikiko zentral eoliko bat jartzeko lehen urratsa izan zitekeelako. Herriaren paisaia eta ingurune naturala jarri zituzten diruaren aurretik. Ez da gauza bera gertatu Heredian, Donemiliagako Zuhatsu herriarekin elkarbanatzen duten mendian haize neurgailu bat jartzeko baimena eman dute, trukean oso gutxi jasota gainera. Espero dugu hau, zentral eoliko txiki bat jartzeko lehen urratsa ez izatea. Argi dago sakonean Herri Batzarren finantziazioaren arazoa ere badagoela, dirua baita enpresek nahi duten lekuan aerosorgailuak jartzeko baimena emateko arra-zoi bakarra.

2008ko martxoaren 9ko hauteskunde orokorrak:

Orain urrun samar ikusten baditugu ere, hemen duzue Barrundian izandako emaitzaren berri. Ezker Abertzaleak abstentzio aktiborako deia egin zuen eta oso esanguratsua izan zen izandako emaitza, aurreko hauteskunde orokorrekin alderatuta %13 igo baitzen. Azpimarratzekoak dira halaber, PSOEn igoera hauteskunde hauetan eta azken urteotan EAJ-PNV izaten ari den eten-gabeko jaitziera.

Hautesleak:	669	
Abstentzioa:	270	%40'36
Emandako botoak:	399	%59'64
EAJ-PNV	154	%39,09
PSOE	96	%24,37
PP	73	%18,53
IU	22	%5,58
EA	20	%5,08
Aralar	18	%4,57
Berdeak	3	%0,76
Besteak	8	-
Zuriak+baliogabeak	5	-

ABIADURA HANDIKO TRENA ERE BARRUNDIATIK PASATUKO DA

Artikulu honen titulua irakurrita, baten batek lekuz kanpokoa dela esan dezake. Hala bada ez zaio arrazoia falta, Abiadura Handiko Trena (AHT) Barrundiako lurrak ez dituelako zeharkatuko. Honek, ordea, ez du esan nahi AHTak Barrundian eragina ez duela izango, gizarte moduan guztiok ikaragarritzko ondorioak pairatuko bait ditugu proiektu hau aurrera ateratzen bada.

etab. Nabaria da tren honek ingurugiroan ekarriko duen txikizioa erabatekoa izango dela.

Amalurran izango dituen kalteetaz harata-go, Abiadura Handiko Trena neoliberalismo eta globalizazioaren irudi garbiena bezala identifikatu behar dugu; guztion diruarekin eraikitako tren bat, baina gutxi batzuk bakarrik erabili ahal izango duten trena da AHT.



Abiadura Handiko Trena hirigune handiak hegazkinarekin lehiakorrek diren denbora tartetan batzeko diseinatu dago, 250-300 km/h-ko abiaduretan. Esan genezake AHT lurretik doan hegazkina dela eta horregatik lurra garraio mota honetara egokitu behar da eta ez alderantziz. Tren mota honen eskakizun handiak gure lurraldean ondorio latz ugari ekarriko ditu: mendi gehienak tunelekin zulatuko dira, lur azpiko urenganako kaltea izugarritzkoa izango da, nekazal lur asko okupatuko ditu, harrobi gehiago behar izango dira eraikuntza lanak porlanaz hornitzeko,

Eta Barrundiatik bote komunera gure zatia jartzen dugun herritar xume bezala erabat kaltetuak izango gara. Baieztapen hau froga dezagun.

Alde batetik, AHT diru publikotik zahututako 10.000 milioi € suposatuko ditu Hego Euskal Herrian (Euskal Y + Nafarroako Korridorea). Noski, dirutza guzti hau ez da bideratuko herritarrengan eragina izango duten behar sozialetara, hala nola, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, garraio publikoa, ... Adibide oso argi bat: diru guzti horrekin alokairu sozialeko 99.000 etxebizitza baino gehiago

eraiki ahal izango lirateke, bizi dugun etxebizitza arazo larriari irtenbidea betirako eman ez. Aurrekontuak tarta baten modukoak dira, non AHTa bideratzen den zatia handiago baldin bada, beste behar batzuetarako bideratzen den pusketa txikiagoa da halaberrez.

Baina eraikuntza lanak ez ezik, biletea ere izugarri garestia izango da (Donostia-Bilbo bidaia 18 eta 24 € bitartean kostatuko du), garraio mota honen erabiltzaile potentzialak ahalmen ekonomiko handiko pertsonetara murriztuz. Hala ere, subentzioak jaso behar izango ditu, erabat defizitarioa suertatuko bait da. Hots, eraikuntza lanak burutzeko diru asko bideratuko da eta bere bizitza erabilgarri osoan diru publikotik subentzionatua egon beharko da; gutxi batzuk erabili ahal izateko bakarrik.

Gobernuetatik, ordea, AHT gizarte osoarentzat onuragarria izango dela eta garraio arazo larriak konponduko dituela esaten digute. Azken baieztapen hau erabat faltsua da AHTk soilik hiriburuak (Bilbo, Donostia, Gasteiz) lotzen dituela kontutan hartzen ba-

dugu. Mugikortasun datuei erreparatu, eguneroko EAEn ematen diren joan-etorrien %97a eskualde barneko bidaiak dira, hau da, eskualde barneko joan-etorri laburrak herri eta hiriburuen artean. Hala ere, egunero ikusten ari gara instituzioetatik garraio publikoari ematen ari zaion tratamendua, autobus edo tren zerbitzuak hobetu gabe.

Ondorioz, Abiadura Handiko Trena xahuketa ekonomikoa suposatuko du, dualizazio sozial handiagoa ekarriko du eta gainera ez ditu trafiko arazoak konponduko, arazo erroetatik ez bait du ikutzen. Nahiz eta Barrundian tren honen ondorioak ez ditugu zuzenean pairatuko, zeharkako modu batean erabat kaltetuak gara; gure bizi baldintzak egunero prekarizatzen diren bitartean (lan baldintza kaskarrak, zerbitzu sozialen pribatizazioak, etxebizitza duin bat edukitzeko zailtasunak, ...); gure gobernariak anti-sozialak eta elitistak diren mega-proiektuak inposatzen bait dizkigute. Bitartean, guk Barrundian gure autobus zerbitzu eskasekin jarraituko dugu.

Informazio gehiago: www.ahtgelditu.org

NOLA ULERTU EGOERA POLITIKOA?

Agian distantzia kontua da. Batzuk askoz hobeto ulertzen dute oso urrun gertatzen dena. Tibet, adibidez. Tibeten ez dago demokraziarik, diote gehienek, Tibet nazio bat da eta ez dizkiote aitortzen nazio gisa dituen eskubideak. Tibeten errepresioak ez du gatazka konponduko, tibetarrei autodeterminazio eskubidea errespetatuta konponduko da gatazka. Ados. Eta Euskal Herrian? Urrunetik begiratuko bagenu argi ikusiko genuke. Euskal Herrian ez dago demokraziarik, espainiar Estatuan ez dago botere banaketarik, PSOEko gobernuak Audiencia

Nacionaleko epaileak erabiltzen ditu, berdin alkatesak espetxean sartzeko, gure herritako kaleei izenak aldatzeko, bizitza osorako zigorrak ezartzeko, alderdiak legez kanpo uzteko zein euskal herritarroi erabakitze eskubidea ukatzeko. Hortaz, Tibeten bezala Euskal Herrian errepresioa ez du gatazka konpontzeko balio, gatazka konpontzeko euskal herritar guztioi autodeterminazio eskubidea aitortu eta gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitze aukera bermatu behar zaigu.

Baina hurbiltzen goazela batzuk posizioa aldatzen dute. Eta hurbiltzen goazela gauza batzuk ezin dira oso ondo ulertu. Adibidez, zergatik ari dira orain PNV eta PSOE elkarren aurka sutzuki orain arte hain ondo konpondu badira?

Hobeto ulertzeko gehiago hurbilduko gara. Adibidez, aztertu dezagun Araban gertatzen ari dena, horrela ulertuko dugu hobeto Euskal Herrian bizi dugun egoera. PSOE aurkari zuela eskuratu zuen PNVk Arabako Foru Aldundia, baina hurrengo egunean PSOEekin hasi zen negoziatzen. Proiektuak eta ikuspegiak zeharo ezberdinak omen dituzte baina urrian aurrekontuak hitzartu zituzten, Foru Aldundikoak Gasteizko Udalekoengatik, alderdien interesen arabera trukea. Espainiar hauteskunde garaian elkarri mokoka baina hurrengo egunean Vital Kutxako zuzendaritza elkarrekin partekatu zuten, PSOErentzako lehendakaria, PNVko Araba Buru Batzarreko lehendakariarentzako maletina. Egoera politikoa gordintzen den heinean PNVk alderdi politikoen legearen eta legez kanporatzearen aurka agertzen da, baina,... ANV udaletxetatik kanporatzeko mozioak hitzartu zituzten eta horrekin batera Araban beste urrats bat eman zuten. Elkarrekin agertu ziren PSOE, PNV, PP, EA eta IU, saskibaloi talde bat izango balira bezala, esku bat bestearen gainean, zertarako? "Terrorismo"aren aurka kontzentrazio batetara deitzeko. Zer lortu zuten? Andra Mari Zuriaren plazan piperpotoak ikusi eta "¡Viva España!" oihuak entzutea. Orain, hauteskunde berri batzuk gerturaten direla ikusita berriro hasi dira eztabaida bizian. Benetan? Zertara jokatzeko dute? Nora garamatza honek? Non geratzen da konponbidea? Ez da izango alderdi bakoitzaren interesa buruan daukatena? Elkarren aurka egiten dutena antzezlan bat da, elkarrekin egiten dutena negoziatioa.

Zalantzaren bat izatekotan gehiago hurbilduko gara, Barrundiaraino. Alkateak argi utzi zuen injustiziari nola egingo dion aurre, barrundiarron eskubideak nola bermatuko



dituen. EAEANV alderdiaren jardura bertan behera geratu da, baina Udal Taldeena ez. Hala ere, gure alkateak ez zuen arriskurik hartu nahi: *"por las consecuencias que pudiera tener para el alcalde"*. Espainiar epaileek ez dituzte PNVko alkateen aurkako neurriak hartzen, hori ANVkoekin egiten dute, Ino Galparsoro espetxeratzea bezala. Baina gure alkateak nahiago izan zuen EAE-ANVko udal taldearen aurka neurriak hartu eta gu eskubide gutxiagorekin utzi, badaezpada, arriskurik ez bazuen ere. Tristeza bezain argigarria.

Gauzak nola dauden ikusita zuen buruari galdetuko diozue: eta orain zer? Guk lanean jarraituko dugu, udal taldea izan edo ez izan, oztopo guztien gainetik lanean jarraituko dugu. Udalerrian gauza asko hobeto egin daitezkeelako, beste modu batetan egin nahi ditugulako, konpondu gabeko arazo asko daudelako herrietan, ase gabeko behar asko. Eta Euskal Herrian, Tibetean bezala, errepresioak ez du ezer konponduko, eskubideak aitortzea bai. Nazio bat gara eta munduko nazio guztiak bezala eskubideak ditugu, lurraldetasuna eta autodeterminazioa. Horren gainean egin behar da akordioa, gatazka konpontzeko eta ez alderdi bakoitzaren interesen onerako.

MEDIKU-KONTSULTA ORDUEN MURRIZTAPENA

Osakidetzak erabaki du, uztailaren lehenatik hasita, Barrundiako mediku-kontsultaren orduak, eta baita lanaldiaren orduak, erdira murriztea.

Kontsulta orduen murrizte honek (hemendik aurrera ordu 1 eta 55 minutukoa izango delarik) Barrundian ematen den osasun-zerbitzuaren kalitatearen gutxitzea suposatuko du. Orain arte osasun-zerbitzu hori beste leku batzuetan baino kalitate handiagokoa zen, eta Barrundiako hiritarrok pozik geunden. Baina, paradoxikoki, Gasteizen arreta orduak gehitzen dituzten bitartean, Barrundian murrizten dituzte. Horrez gainera Barrundiako herrien populazioa handitu egin dela esan behar da.

Osasun-zerbitzua publikoa eta kalitatezkoa izan behar da, eta guztiok borrokatu behar dugu aurrez genituen kontsulta orduak berrezkuratzeko. Udalak gai honekin badauka zereginik; eta baita barrundiarrak ere : eskatu erreklamazio orriak , medikuari edo erizainari, eta bete itzazu. Protesta egizu, eta ez onartu gure osasun-zerbitzuaren kalitatearen gutxitzea.

BILERA IREKIA
Uztailak 19, larunbata
Goizeko 11etan

BARRUNDIA
Udaletxeko Hitzaldi Aretoan

Udal gaiak, balantzea, informazio fidagarria, eztabaida, kritika, partaidetza irekia, ekarpenak, iradokizunak, zalantzak eta galderak, proposamenak,...

ZATOZ!!!!